

Euskal itzulpenaren mundua hobetu eta aberastu dezakeen faktore eragileetako bat da harremanen alor hau. Oiloarena eta arraultzearena errepikatzen da, agian: harremanek hobetuko duten itzulpena, ala itzulpenaren hobekuntzak ekarriko duten harreman premia. Atarrabiok erabaki beza.

Josu Zabaleta

Tarazonako Itzultzaile Etxearen inaugurazioa

1988ko maiatzaren 29an inauguratu zen ofizialki Tarazonako Itzultzaile etxea. Aldizkari honetan bertan idatzi izan da Itzultzaile Etxeen antolamenduaz (Senez 1986, 2-3).

Etxeok Europako Batzordearen laguntzaz ari dira sortzen Europako estatu guztietan. Tarazonakoa laugarrena da, Alemaniako Straelen, Frantziako Arles eta Italiako Procittakoen ondoren.

Paco Uriz olerkari eta itzultzailearen bultzadaz sortu da Tarazonan etxe hau, Elmar Tophovenek Straelengoa sortu zuenean eman zizkion xede berberekin: Itzultzaileei baliapideak eskura jarritz itzulpenen kalitatea hobetu (literatur itzultzaileena batez ere).

Inaugurazio ospakizunak Veruelako monastegian eta Tarazonan bertan izan ziren. Bereziki aipatzekoak eta txalotzekoak dira ospakizunon antolamendua eta Tarazonako udaletxeak bertara joandako guztioi egin zigun atospena.

Europako Batzordeko, Zaragozako eta Tarazona bertako ordezkarietaz gainera Europako lau beste hiru Itzultzaile Etxeetako ordezkariak, eta Espainiako Estatuko Itzultzaile Elkarteetakoak ere bertan

ziren eta holakoetan ohi den haiekiko harremanak estutzeko aprobetxatu genuen elkarte honen izenean bertan izan gineno eskaintzen zitzaigun aukera.

Elkarteak harreman horiek zabaldu eta sakondu egin behar ditu aurrerantzean, eta bere bazkide guztiei eman horiez baliatzeko aukera.

Tarazona Nafarroaren muga-mugan dago, Zaragozako probintzian sartuta, Bilbotik eta Donostiarik ordu pare bateko bidea eginda. Tamalgarria litzateke, alde askotako itzultzaileekin kontrastasuna izateko aukera hori, eta geure izatea eta egoera ezagutzera emateko, atari-atarian edukita, ez baliatzea.

Josu Zabaleta